

...eta

kitto!

828 zkia.
2012-XII-14



ALFA Bidegurutzean



mō
BETAURREKO
PROGRESIBOAK

Get mezikook • Isan bertroko kristalez • Graduzko Gaztari

Gabonetan, izarrak bezain distiratsu.

50%
lehen-guztietan

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR.

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



ODONTOLOGIA OROKORRA

ORTODONTZIA

Invisalign **3000000€**
 Epikutuko mihi-ortodontzia ikusazina **3000000€**
 Zeramika eta zirkonizko bracket oso estekoak **3000000€**

PERIODONTZIA

Diagnosi digital periodontala **3000000€**
 Análisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoa **3000000€**
 Periodontitis-tratamendua kirurgian gabe **3000000€**
 LASER dindoa
 Mentuak hortzoietan

AHO-KIRURGIA

Ateratze zalak eta sustrai-hondarrak
 Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin
 Barneko hortzak ateratzea

INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak
 Hezur-binarztza bi-material bidez **3000000€**
 Hortzoi-binarztza
 Inplantologia transjogomatikoa **3000000€**
 Hortz linkoak egunean bertan inplanteekin **3000000€**

PROTESI FINKOA

Metalezko koroa libreak **3000000€**
 Zirkonizko koroa piumak **3000000€**
 CAD-CAM korroak (ordenagarituz egindakoak) **3000000€**
 Karilak

MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean

ODONTOPEDIATRIA (PADI)

ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA

MUTUA ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD,
 CARREFOUR LIFE, IMAQ, AZKARVAL PREVISORA BELBANA, SANTA LUCÍA,
 AEGON/STONERIDGE, DCASO, AVANT/SAULI, PADI...

ZERBITZU BERRIAK

IRAZABAL OROLOGIA



Asteleheneroetik ostiralera
08:00etatik **22:00**etara
 Zapatuetan
10:00etatik **14:00**etara

IRAZABAL DENTARAKO TELEFONO ERREZKO ARRETA

24 orduz



GALDETU 2. MAILAKO

Unibertsitate entzutetsuetan
 Irakasleak gara.
 Ospea duen zentroa gara.

ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeke arreta:
 Pazientea jaso
 eta etxera itzuli



IRAZABAL

clínica dental

Julán Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20630 EIBAR
 Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

%20 Deskontua
 hortz-
 inplanteetan*

* Soilik hortz-inplanteentarako

%10 Deskontua
 larunbatetan
 egindako
 tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa
 Hortzetarako arkatz zuritzaillea
 Higienea **525 €**
BESTELAKO PROMOZIOAK: GALDETU

ASTEAN ESANAK

“Gu baino ganora gehiagorekin garatu eta normaldu diren hizkuntzek estatu bat izan dute atzean. Ez daukagu munduan eredu bat antzeko baldintzak dituen. Gauza gehienetan guk atera beharko ditugu babak eltzetik”
(JON SARASUA, GARABIDEKO KIDEA)

“XVIII. mendera arte sinetsi zuten andrea biologikoki tentelagoa zela eta birjina-puta dikotomiak egungo gizartean oraindik segitzen du. Ez hori bakarrik; emakume emantzipatua izateko ere eredu jakin bat egon da: doktrinatzea”
(AMAIA NAUSIA, HISTORIAGILEA)

“Gure garaian pilotazalea oso zorrotza zen: ondo jokaturako txalo, baina gaizki jokaturatu txistu zaparrada latzak, batik bat Astelena bezalako frontoietan. Portatzeko era asko aldatu da gaur egun”
(JOXEAN TOLOSA, PILOTAR-OHIA)

“Soka bereko muturrak dira lehengo suziri festa eta neurrigabeko kontsumoa eta oraingo gehiegizko zuhurtzia. Lehengo jarrera puntakoa zen moduan, gaur egun berdin bestelako zentzuan bada ere”
(DANIEL HERMOSILLA, PSIKOLOGOA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

IZOTZ BALTZ.- Ihintzik gabeko izotza, ikusten ez dena. “Bart, izotz baltza, izan leikian txarrena baserrirako”.

IZPITU.- Gauza bat izpitan, haritan, zatitu. “Zurrukutuna egitteko, bakillaua izpitu biar izaten da”.

IZTARRIXA ZERRAU.- Eztarria itxi, aфонia izan. “Hainbeste orruagaz, iztarrixa zerrau jata”.

eskutitzak

—OHARRA—

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derriogrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunikizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

GIDA KOMERTZIALA DATORREN ASTEAN

Urteroko moduan prest daukagu datorren urterako Gida Komertziala. Datorren astean, astelehena eta martitzena bitartean (abendua 17 eta 18) jasoko duzue zuen buzoian 2013ko Gida Komertziala. Eibarko

denda eta enpresak batzen dituen gida eta gure ohiko banaketa sistema jarraituta, aldizkaria jasotzen duen guztiak izango du bere Gida etxean.

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.
PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETTA)

kutxa gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

autuan

STOP DESAHUCIOS

Bixar eratuko dabe, eguerdiko 12.00xetan, Debabarrena mailla-ko Stop Desahucios plataformia Plaza Barriako Casino Artistan egingo dan billeran. Debabarrena-ko alkartiarekin izango da Ermuko Altermuatiba taldea eta han izango dira hainbat udaletako ordezkariak be, tartian Eibar-kuak. Herritarren ekimenez sortutako taldiarekin bat egiteko 699143751 telefonora deitu leike (Imanol Goikoetxea).

ARKITEKTURA JARDUNA

Atzo hasi ziran M-Etxea kolektib-
uak udalarekin alkarlanian antolatutako arkitektura jardunal-
dixak. Berreibar izenari jarraituta,
bixar arte gure herrixan era-
billi barik duguaz en eraikin in-
dustrial zaharrak atzera be era-
biltzeko aukerak aztertuko ditue,
bestiak beste.

GOI ARGI

Urteroko moduan Gabonetako loterixia etara dabe Goi Argi-
kuak. Erosi nahi dabenak bazki-
dieri zuzenian eskatuta edo ohi-
ko tokixetara juanda topauko dit-
tue 78.771 zenbakixaren partizi-
paziñuak.

Funzionarioak hasarre ez dabelako pagia jasoko

Udaleko enpresa batzordiak agerraldixa egiñ eban eguaztenian, gobernu taldiak Gabonetako pagia ez ordaintzia erabagi dabela eta, bihargiñak hasarre daguazela azalzteko: "Paga bat ez ordaintziak gure soldatak aurten %7'14 jaistia eragingo dau. Hori aurretik euki dittugun murrizketeri gehitzen badetsagu, azken urtiotan gure eros-ahalmena %20 bajau da". Gaiñera, eureri soldatia bajatziaren helburu bakarra "presupuestoko beste partida batzuetara bideratzia" dala diñue. Politikuak euren pagia jasoko ete daben galdetzen detse euren burueri: "2011n gure soldatak izoztuta eguaztenian eurenak %4'5 eta %5 bittartian igo zittuen. Gobernu batzordia osatzen daben 9 lagunenatetik 7k udalaren soldatia jasotzen dabe



eta aurtengo uztaillian, gure soldatak jaistekotan eguaztenian, liberau bariko ziñegotzi biren dietak igo zittuen".


60 urte bete dittu Kulturalak



Arrate Kultur Elkarte sortu zala 60 urte bete barri dira (alkartia legal-ki sortzeko eskaeria 1952ko azaruaren 29xan egiñ eben) eta, hori gogoratzeko, alkartia sortu eben bazkidiak eta gaur egunian alkartiaren zuzendaritzan eta lantal-
dian diharduenak ospa-
kizuna egiñ eben.


Janarixa eta jostailluak batzen hillaren 18ra arte

Abenduaren 18ra arte egongo da martxan jostailluak eta jatekuak batzeko Eibarko sozialistak, Gurutze Gorrizarekin eta Elikagai Bankuarekin alkarlanian abiarazittako kanpaiña. Lagundu nahi dabenak gauzak Casa del Pueblon (Isasi, 2-2. pisua) laga biharko dittu martitzena baiño lehen.



Gabon-otarrak opari plazan


Hillaren 31ra arte egongo da martxan Gabonetako kanpaiña Merkatu Plazan. Iaz egindakua-
ren bidetik, bertan erosketak egitten 100 euro gastatzen dittueneri Gabonetako lote edo otar bana oparituko detse. Otarra sasoi honetan tipikuak diran produktuak (turroiak, trufak, bonboiak eta cava) osatzen dabe eta bezero bakotxak gehixen jota otar bat jasoko dau. Bestalde, 100 eurua ez dira derrigorrez erosketa bakarrian gastau bihar, erosketa diferentietako tiketak pillatzen juateko aukeria dago eta. Iazko kanpaiñan 1.000 bat lote banatu zittuen.



83.000 gutun banatu barik

Aurreko asteko astelehenian ekin zetsen greba mugagabari Correos-eko bihargiñak, zuzendaritzak etxerik etxeko banaketan diharduen postarixetako bost kaleratu nahi dittalako. Greban dagozen postarixak astebeteko tartian banatu bari-ko 83.000 gutun eta pakete buleguan pillatzia eragin dabe.

Bihargiñak diñenez, "murrizketak eureri eragittiaz gaiñ, herritarrendako be kaltegarrixa litzake, zerbitzuaren kalidadiak okerrera egingo leukialako". Gauzak holan, oiñ arte zuzendaritzak bihargiñekin batziari uko egin detala diñue eta egunero bulego parian protestatzen dabe.



Arantza Lasa

Nafarruako erregiña ahaztuak

Aurten Nafarruako Erreiñu Zaharra izan dogu goguan. Zer dala eta? Bada bostehun urte pasau diralako Nafarruako erresuma Gaztelako erreñuaren menpe jausi zala. Halaxe, eta urteurrenarekin lotuta, aztertuta dagoz antxiñako estamentuak, politika-bidiak, erregetzaren sustraixak, herriko gizon-emakumien bizimodua eta baita haundikixenak be. Eta, erregiñaz eta nobleziaren emakumien jardunbidiak goguan hartzian, zuzena erizten jaku sasoi nahastu eta goraberatsuetan ezkontzako politikarengaittik ixillixan geratu ziran emakumiak aittatzia. Hamen labor-labor Enekotar eta Ximenotarren senitartekuak ziran emakumien izen batzuk: **Oneka:** Aritza dinastiakoa (800-905). Eneko Aritzaren ama, behiñ alargunduta, Muza Beni Kasirekin, Musa ibn Musa izango eban seme. **Leodegundia:** Iruñako erregiña IX. gizaldi aldian. **Ximena:** Iruñako erregiña X. gizaldiko azkeneko urtietan. Antso Nagusixaren eta Urraka Leoneko erregiñaren ama. **Ximena** iruñarra: Asturiaseko erregiña izango zana. Gartzia Ximenezen arrebia. Bere ezkontza itun soziala izan zan. **Oria:** Musa ibn Musakin ezkontuta. **Andregoto Galindez:** Aragoiko kondearen alaba. Aipamen berezixa eta aparteko zutabian idaztekua merezi dau **Toda** erregiñak. Hurrenguan izan biharko dau ba...


Solar sarixetako bat Eibarrera



Energixa barriztagarixen erabillera egokixak saritzen dittuen Solar 2012 premixuetako bat, heziketa eta formaziñorako ekimeneri eskindutako atalekua jaso dabe Eibarko Ingeniaritza Teknikoko Unibersidade Eskolakuak. Eurosolar alkartiak banatutako premixua 2011-2012 ikasturtian Energixa Barriztagarixen inguruko ingeniaritza gradua eskintzen hasiagaittik emon detse. Estadu maillan holakua irakastiari ekin detsan lehelengo ikastetxia izan da.

Bilduk tupperrak erosteko eskatu detsa udal gobernuari

Hainbat proposamen eta eskaera egin detsez udal gobernuari Bilduko ordezkariak. Batetik, Kutzaren gizar-te ekintzak Gipuzkoako udalerrixerri eskindutako Ekogunea proiektuarekin bat egiñ eta, tupper berrerabilgarriak herrittarren artian banatu ahal izateko ahalegiña egitteko eskatu detse. Honezkeru 8 herrittan martxan dagan ekimenari jarraituta, harategi eta arraindegixetan erosketak egittian tupperrak erabilliko gendukez, etxietan sortutako hondakiñak eta



Hiru milla tupper erostia proposatzen dau Bilduk.

saltokixetan produktuak batzeko erabiltzen diran paper eta poltsa kopurua murriztuta. Behiñ erabillitta garbittu eta barriro erabiltzeko moduko tupperrak herrittareri musutruk emongo zetsazen. Bildukuen berbetan, "3.000 tupper erostia 9.860 euro kostatzen da, baiña subenzionauta egotian udalak bakarrik 2.290 euro pagauko littuzke". Eibar Merkataritza Gune Irekixari eta Udaleko Ingurumen batzordiarri proposamena egin jakuela baiña oindiok erantzunik ez dabela emon diñue.

BELARRITAKO
KARRATUA:
34,60 euro


ZINTZILIKARIO
KARRATUA:
18 euro

HARMARRIA
ZINTZILIKARIOA:
23,60 euro

PULTSERA:
38,90 euro

KAXA:
22 euro

UMIEN KAMISETA:
20 euro




EGUZKILORE ZINTZILIKARIOA:
30,20 euro

KATEA:
20 euro

NARRUZKO PULTSERA:
11,80 euro



ARBOLARAKO
OLENTZERO:
3,50 euro




KAMISETA NAFARROA:
12 euro



KAMISETA BERTSO B:
15 euro

KAMISETA REVOLUTION:
17 euro

KAMISETA BERTSO A:
15 euro



TXANPONETAKOA:
4 euro



GERRIKO POLTSA:
12 euro

KITTO-AMANTALA:
10 euro



KITTO-AMANTALA:
15 euro



ONGI ETORRI



ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN bulegoan (Urkizu, 11) **ASTELEHENETIK BARIKAKURA 10.00-13.00/16.30-19.30**

**IKUSI,
AUKERATU eta
EGIN ENKARGUA!**

TxotxongiLOA B:
35 euro

TxotxongiLOA A:
35 euro

...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako KATALOGOA

KATALOGOAK DITUEN IRABAZIAK EUSKERA SUSTATZEN ERABILIKO DITUGU



Euskara Elkartea




KARRIKIRI
IRIBIKO EUSKALGAIEN TIKETAK



AURREZ AURRE: 12 euro



BEGIAK LEKUKO: 15 euro




ERRIAK: 16,70 euro




GOZATEGI ALL STARS: 16,70 euro




HERRI MUSIKA TA DANTZA: 11 euro



IBILEAN: 18,50 euro




NAFARROA BIZIRIK: 12 euro



OROIMENAREN ORAINA: 19,65 euro



XABIER LETE ZUZENEAN: 24 euro



GARTXOT: 14 euro



TXANTXARIAK: 20 euro

DISKO,
DVD ETA
LIBURUAK




ZORION ARGIAK: 16,70 euro



KAFE ALEAK: 15 euro

HISTORIA NAFARRA: 18 euro





Argi billa Alfaren sasoirik baltzenian

Alfa Taldiak egun latzak bizi dittu urte honen hasieratik, harrezkero kaudimen edo diru barik dagualako. Produzkiñua aurrera etartzeko materialak eta bestelakak pagatzeko dirurik ez egotia gaur egun bizi daben egoerariño bultzatu dittu. Aurreko astian bertan LAB sindikatuko ordezkariak prentsaurrekuan salatu ebenez, "zuzendaritzaren gestio eskasak" eragin dau dana. Edozelan be, aurtengo urrixaren 17xan enpresiak lege konkursalerako eskaeria egiñ eban, azken momentuariño bankuekin akordioaren bat lortzen ete eban ahaleginduta be. 60 millioi euroko zorra dakan 13 entidadiekin batu zan, baiña ez eben

adostasunik lortu. Egun gitxira, azaruaren 6xan Donostiako merkataritza epailliak Alfa konkursuan sartzia onartu eta hartzekodun konkursalak izendatu zittuan: Edorta Etxarandio eta Ignazio Baranica.


Prozesu honetan guztian gauzak egiteko moduarekin hasarre agertu ziran LAB-ek: "Zuzendaritzak, bihargiñeri ezer esan barik, prekonkursua presentau eban eta handik astebetera konkursua. Gaiñera, bihargiñak nahasteko asmoz, S.A.L. direlakuak sortzeko asmua azaldu zetsen, *tallar bakotzak bere salmentak eta irabazixak gestionauta, baiña hori eziñezkua da konkursuan dagan enpresa batendako*".



Aurreko asteko agerraldixan enpresieren jarrerarekin oso kritiko azaldu ziran LAB-eko ordezkariak.

Enpresiak bihargiñeri gauzak azaltzeko egin daben billera bakarrian esandakuaren arabera, "Alfa aurrera egiteko aukeria daka, baiña taldia desegiñ eta enpresa bakotxa bere aldetik juanda". Prozesuan lanpostu batzuk galduko dirala be esan zetsen, "baiña ezer gehixago ziheztu barik". Bixen bittartian, bihargiñak benetan txarto pasatzen dihardue. Enpresiak 2'5 hillebeteko zorra euki dau eurekin eta etxe askotan gorrixak ikusi dittue. Azken mobilizaziñuan kontau zeskuen moduan, "hamen bikote batek baiño gehixagok dihardu biharrin. Ez badeskue nomina pagatzen etxian ez dago

beste diru-sarrerarik eta guk hipotekiari, umien gastueri eta beste guztieri bardin-bardin egin bihar detsegu aurre. Denetarik ikusten dihardugu: kanpotik biharrera datorren batek kotxiari gasolinia botatzeko dirurik ez eukitzia eta amari eskatu bihar izatia, kobrau barik biharrin segidu ahal izateko. Edo argixa ez pagatziarren argindar barik geratu danik be badago. Etxe bakotzak bere dramia dauka, danak diferentiak, baiña danak larrixak". Etorkizuna argitu bittartian, mobilizaziñuekin segiduko dabe eta bixarko kotxekarabania deittu dabe, 11.00etan Eroskiko parkiñetik urtetzeko.



Lanpostu mordua dagoz kolokan oin momentuan.

Udalaren babes osua

ALFAKO enpresa batzordiak oin dala egun batzuk udalera jo eban, babes eta laguntza billa. Alkatiarekin berba egin eta honezkero bozeramaillien batzarrian alderdi guztiak aho batez onartu eta hurrengo plenuan berretsiko daben 3 puntuk osatutako moziñua presentau dabe. Lehelengo puntuan udalak "Alfa taldeko bihargin guztieri babes osua" adieraztiarekin batera, enpresia hartzekodunen konkursuan egonda, hortik etorri leikiazen kaleratziak eta horren ostekuak "kezka eragiten detsela" diñue. Horren aurrian, eta beti be ahalik eta lanpostu gehixeneri eustia helburu dakela, Diputaziño, Eusko Jaurlaritza eta bestelakuen aurrian egin leikiazen gestiñuetan laguntzeko konpromisua hartzen dau udalak bigarren puntuan eta hirugarrenian, barriz, lanpostuen defentsaren alde Alfako bihargiñak antolatutako ekintza sindikal eta sozialeri aurrera egitteko laguntasuna emongo detsela diñue.

Miguel de los Toyos alkatiak holan egin desku berba moziñuaren gaiñian galdetu



Udalaren helburu nagusixa lanpostu gehixen salbatzia da.

detsagunian: "Alfaren bidegarrittasunaren alde zeozer egitteko aukeria dakagun guztiak bide horretan eta horren alde jardun bihar dogu eta horretan erabat ados gagoz alderdi guztietako ordezkariak, horregaittik hori lortzeko gure esku dagan guztia egitteko gertu gagoz. Bihargiñekin batu aurretik Jon Ander Buentearekin be batuta neguan, baiña argi esan nahi dot holako situaziñuaren aurrian Alfari bere osotasunian, bereizke-

rixetan sartu barik laguntzia nahi detsagula".

Enpresia konkurso egoerian egonda, taldiaren etorkizuna ez dago bape argi eta, horregaittik, gauzak argitzen jua arte behintzat, Alfak atiak itxi eta bertan diharduen 600 bat lagunak kalia geratzeko arriskuak hor dirau. Alkatiak, baiña, Alfa taldia osatzen daben enpresetako batzuk aurrera egitteko moduan daguzela pentsatzen dau: "Argi dago Alfa ez dala beste sasoi batian izan

zana atzera be izango, baiña enpresa barruko iturririk zuzenian esan destenez, Alfarendako etorkizuna egon badago. Bidian, baiña, bihargin batzuk kalia geratu biharko dira, eurak kalkulaten daben bez 150 bat lanpostu desagertu biharko dira. Kaleratze guztiak mingarriak dira, jakiña, eta langabezian geratutakuen kopurua ahalik eta txixixena izaten ahalegindu biharko gara. Egoeria ez da onena, baiña dana itxi eta bihargin guztiak kalia geratzia baiño hobia, behintzat, bada".

Alfak gaur egunian dittuan arazuen jatorrixa zuzen-zuzenian diruari (diru faltiari) lotuta egonda, azken urtiotan murriketa morduarekin dabillen udalak diruarekin laguntzeko modua izatia pentsatziak ez daka zentzu larregi, alkatiak berak baieztatu deskun moduan: "Holako situaziñua bizi izan daben beste batzurendako laguntzarako plan berezixak egon dira aurretik be. Horregaittik, eratu barri dan Eusko Jaurlaritzak horretarako bide barrixak sortzen dittuan ikusi biharko dogu".

ZEUS ZARA
PROTAGONISTA

Amorrieta 29 - 48340 Amorrieta-Ebano (Bizkaia)
 info@zuzuzakopamelegia.com
 www.zuzuzakopamelegia.com
 Tel: 94 630 83 04

Krisixan jaixotako enpresia

ALFA 1920. urtian sortu zan, orduan urtian izan zan greba luze eta latz baten eragiñez. Armagintzan ziharduen bihargiñetako batzuk batu eta Kooperatibia antolatziari ekin zetsen. Urrixaren 28xan eratu eben "Sociedad Anónima Co-

operativa de Producción de Armas de Fuego Alfa" 300.000 pezetako bazkide-kapitalarekin. Harrezkero sortzailliak emondako kooperatibismo eta izaera sozialari eutsi de tsa Alfak.

Lehelengo tallarra Vista Ale-

gre (Bista Ederren) kaliañ egon zan Echeverria Herma nos edo "Kirikixuanekua" lan tegixak aurretik bete eban to kixan. 32 eta 38ko esmitzak (Smith Wesson) egitten hasi ziran. Baiña 5 urteren bueltan, armagintza sektoriak ezagutu eban krisixak eraginda, goittik behera kanbixau eban pro duktua eta 1925eko otsaillaren 4an josteko makiñak egiñ eta saltzeko erabagixa hartu eban. Ordurako tallarra San Andres Pasealekuan eguan. Josteko makiñak egitteko lege-baime na 5 urterako emon zetsen eta horrek mesede haundixa egin zetsan Alfari merkatuan azkar sartu eta produkziñua ugari tzeke, Espaiñian sektoreko aitzindarixa izatera aillegauta. Orduan saorian Alfari esker 1.000 famelixatik gora bizi zan. Horretan Toribio Etxebarriak gerente modura egindako biharrak berebiziko garrantzixa euki eban. 1936rako 6 millioi pezetako kapitala zekan Alfak, baiña hurrengo urterako gerriaren eragiñez enpresia galzorixan egon zan. 1938ko abenduan estadua Alfaren ja be egin zan, baiña handik urte

bira enpresiak beria zana berreskuratzia lortu eban. 1953an aillegau ziran barrikuntzak: mikrofusiñua, fundiziñua, trans fert makiñak eta lokal barrixak. 1975ian instalaziño barrixak martxan ipiñi eta 1977rako se kula baiño bihargin gehixago zekazen, 2.424. Hortik aurrera gainbeheria etorriko da sosi guz-sosiguz eta 1992xan 1.000 millioi pezetako galerak euki zittuan, baiña Enrique Trebi ñoren taldiak enpresia hartu eta aurrera egitteko modua euki eban. 1995ian, 517 bihargi ñeko enpresia aurrera etara tzeke plan barrixa presentau eban zuzendaritzak.

Gaur egungo sasoiara gertu rauta, 2004an San Andres pa sialekua hustu eta Torrekuñan eraikittako lantokira traslada uko dabe Alfa. Alfa taldia gaur egunian osatzen daben en presak Alfa Precisión Casting (APC), Util Alfa, Alfa Arte, Alfa Hogar, Alfa Idei (horiek guztiak Eibarren), Mecánicas Mallabi (Mallabian), Industrias GOL (Soraluze eta Berrizen) eta Ru magol (Errumania) dira eta bertan 650 bat bihargiñek dihardue.



Alfakuak lanetik urtetzen 1960. urtiaren bueltan.



Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS







Bellatokia Funeuskadi Eibar: Otxola, 27 Bulegoa: Eizaberría, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
El primer servicio funerario de Euzkadi

• Eibar • Donostia • Bilbo • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de los Monteros •



Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorretako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

- 1 Kardiologia
- 2 Zirugia
- 3 Dermatologia
- 4 Dietetika eta Nutrizioa
- 5 Análisi Klinikoak
- 6 Ortodontzia
- 7 Otorrinolaringologia
- 8 Pediatria
- 9 Psikiatria

- 10 Barne Medikuntza
- 11 Radiologia
- 12 Urologia
- 13 Traumatologia
- 14 Koloproktologia
- 15 Erizaintza
- 16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
- 17 Foto-depilazio Unitatea

Baliteke gidariren bati teleordainketa berriak ilusiorik ez egitea

Gipuzkoako autobideetan, gehienez

25,64€ / hilean
(guztira gutxienez)


AP-1 / AP-8

VIA-T teleordainketa



Itxialdi homologatua baldin baduzu eta mutur bidetik bestera (bi behar baduzu, autobidean barrena, intersektamtu inbuktuko zaku zifra hau: 25,64 €/hilean. Getreneko tarifa berria dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bidegik martxan jarri, AP-1ean eta AP-8an egunero ibiltzen diren milaka gipuzkoarren gaitia arintzeko.

www.bidegi.net



Gipuzkoa
BERRIA

Amaia Rodriguez Agirrek Itzulpengintza dihardu ikasten Gasteizen, azken urtea zehazki. Baina, lehengusinak animatuta, bideo-muntaia probatu du lehenengo aldiz "Beldur Barik" jarrera lehiaketan parte hartzeko. Emakumeek jasaten duten bereizkeria egoerari aurre egiten dioten gazteen arte-adierazpenak onartzen dira 3. edizioa bete duen lehiaketa horretan. Eibarko saria irabazi dute Amaiak eta berarekin jardundakoek.

- Zelan animatu zinen parte hartzera?

Kazetaritza egiten diharduen lehengusinak bultzatuta. Batez ere, jakin genuenean Euskadi mailan jokoan zegoen saririk aparte, Eibarko onenak ere saria jasoko zuela.

- Askok kostatu zitzaizuen egitea? Denbora asko eskatu zizuen?

Azken orduko erabakia izan zen. Ideia hartu, testua prestatu eta asteburu bateko kontua izan zen.

- Jende askoren parte-hartzea behar izan zenuten?

Inguruko jendea konprometitu genuen. Amama konbentzitzea izan zen zailena, baina bera ere animatu zen.

- Zer adierazi nahi izan duzue zuen lanean?

Zeinu-hizkuntzaz baliatu gara, horrekin erakusteko ezintasunak ezintasun-badirela bideak oztopoei aurre egiteko eta komunikatzeko zailtasunak saihesteko. Indarkeria egoeratik irtetzeko bideak badirela adierazi gura izan dugu.

- Halako beste lanik egin duzue aurretik?

Itzulpengintza ikasten dihardut eta bideoaren mundutik

aparte ibili naiz. Bazegoen ni baino iaioagorik arlo horretan.

- Dena dela, esperientzia aberasgarria izango zen...

Askok. Batez ere, sari-banaketaren ekitaldian entzun nituenei esker jabetu nintzen zein gertu ditugun askotan benetakoko egoera latzak. Andretxeakoei hainbat esperientzia jakinarazi ziguten eta herriko jendea horrelakoetan inplikaturik dagoela ikusteak gertutik eragiten dizu.

- Asmorik bai halako beste zozer egiteko?

Aukerarik balego, zergatik ez? Honen aurretik ere ez nuen nire burua halako batean ikusten.

- Hurrengo erronkek, dena dela, beste bide batetik eraman gozaituzte, ezta?

Aurten amaitzen dut Itzulpengintza eta, ondoren, Irakaskuntza Masterra egiteko asmoa dut.

- Epe luzera, zer gustatuko litzaizuke egitea?

Interpretazioan jardun nahiko nuke, baina zaila dago asuntza, plaza gehienak beteta baitaude.



Amaia Rodriguez
(BELDUR BARIK-EN IRABAZILEA)

"Lanean zeinu hizkuntzaz baliatu gara"



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



K21

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



GABONETARAKO erosketa GIDA



Ego Gain, z/g
943 12 73 50

Telebista digitalaren
INSTALATZAILE
OFIZIALA



OFERTAK
ETA INFORMAZIOA:
www.trinmer.com



- Erlojuak
- Zilarra
- Artisautza
- Bitxikeriak


Pitxiak

Zuloagatarren, 9
943 20 17 40



J. Etxeberria, 13
943 70 02 30

*zorionak eta
urte berri on!*




- Opariak egiteko aukerarik onena

- Laser depilazioa
- Masajeak / Osteopatia
- Luzarorako manikura
- Gel azazkalak
- Oparirako bonoak
- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mikropigmentazioa




Bidebarrieta, 5
943 20 15 47



San Juan, 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua

- Emakume eta gizon moda
- Lentzeria eta osagarriak




Valenciaga

Zuloagatarren, 1

943 20 22 33 valenciagaonline.com






TXUKUNA

E. Garate, 1
943 82 13 08

- Barruko erroa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)




Zorionak!

Zuloagatarren, 7
943 53 15 00


Quetzal

- Gabon hauetan zure marka gustokoenekin:

- Zergatik
- Hunchiha
- Morgado
- Smash
- Kalare
- K1000



Zuloagatarren, 2
943 20 09 91



San Agustin, 3 943 20 84 41
(Laster Bidebarrieta, 18an)

laguinda





- Pantyak
- Galtzerdiak
- Mertzeria

KINKILTA

Bidebarrieta, 16
943 70 23 29

- Etxeko batoiak
- Ume eta helduentzako pijamak
- Galtzerdiak
- Mukizapiak
- Barruko erroa

Mota guztietako artileak eta hauek lantzeko ikastaroak



- Mendirako behar duzun guztia
- Etorri zaitzez ikustera

mara mara

Arragueta, 10 943 70 20 63

ASTIGARRAGA



San Agustin, 2
943 20 40 63




Guby

Birjiñape, 1
943 20 28 33

Zuloagatarren, 9
943 943 20 12 40

zorionak!




LIDE

T. Etxebarria, 10 - Gazte Moda
943 20 21 71 lideonline.com

Laumar

Bidebarrieta, 1
943 20 16 26

- Landareak
- Lora sortak
- Zentro naturalak eta artifizialak
- Teleflora zerbitzua



Ditare

Urkizu, 7
943 12 73 21



- Gizon eta emakumeendako lentzeria eta kortseteria
- Taila bereziak

30 urte zuekin




baglietto

Errebal, 21
943 20 19 22

- Opariak
- Etxerako osagarriak
- Pinturak

- %50eko deskontua eguzkirako betaurreko eta graduatutako modelo batzuetan



zorionak!

GU BY


J. Etxebarria, 2
943 20 15 51

- Gusto eta adin guztietako moda



Ego-Gain, 2
943 70 14 08






txanpu

Bidebarrieta, 16
943 12 07 35

*Helbide
berria dugu*

Ikusimakusi




Calbeton, 8

943 20 08 68 ikusimakusi.com - Ume eta gazte moda (0 urtetik 16ra arte)

Mahatsondo

Isasi, 19
943 20 09 07

- Ardorik
onena
konpainia
onean
edaten dena



La tienda de Pauda

Zuloagatarren, 7
943 70 15 46

Zorionak!


Luci

Bidebarrieta, 60
943 12 15 62



Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

- Pastelak, "txikiak",
pastak, rellenak,
bonboiak, tartak...
- Enkarguak etxera




- Mozketak
- Koloreak
- Tratamenduak
- Makillajeak
- Manikurak...

... Ondo sentitzeko behar duzun guztia

- Opari-bonoak ditugu

GABON



Zoriontsuak!!!

Institutuko ikasleak Donostian arteaz gozatzeko

Ignacio Zuloaga institutuko ikasleek Donostiara txango kulturala egin zuten. Irteeran parte hartu zuten ikasle-tako batek, Haizea Arizagak kontatu digunez, "zoritxarrez, ailegatu bezain laster euri zaparrada botatzen hasi zen. Hala ere, eguraldi eskasak ez


zuen arteaz gozatzeko gure ilusioa zapuztu. Koldo Mitxelena kulturuneko aterpea gustura hartu genuen eta, are gusturago bertan ikusgai zegoen Fiona Tan artistaren erakusketa. Neska gazte batek Fionaren bitzta kontatzen zigun bitartean, inguratzen gintuzten bere lanez nire bost zentzumenak busti nituen. Kuriosoa zen. Oso kuriosoa. Batez ere etenbarik mugimenduan zeuden argazkiek osatzen zuten erakusketa. Gehienbat arxiboetatik ateratako argazkiak ziren, baina bazeuden Fionak berak filmatutako lan batzuk ere. Bikainak, nire iritziz. Egia da, bai, oso bisita laburra izan zela, denbora

aldetik justu samar genbiltzako, baina ez nuen minutu bakar bat gehiago behar izan Fionaren lana preziatzeko".
Izan ere, behin klasetik irten eta Donostiaraino joanda, ahalik eta gauza gehien ikusten ahalegindu ziren. Ikasleak bere kronikan jasotakoari jarraituta, "Koldo Mitxelenatik atera eta korrika joan ginen Kursaalera, Goya sarien 26. urteurrenaren harira antolatutako erakusketa ikustera, alegia. Sartzan gindoazen heinean, nire begiek zertan pausatu ez zeki-



ten. Hainbeste ziren bertan zeuden detaileak; atrezzoaren erreplikak, filmetan erabilitako jantziak, jatorrizko storyboardak... Aparteko erakusketa zela deritzot. Hori bai, ni naizen bezain zinemazale sutsua direnentzat, jakina! Izan ere nire lagunek ez zuten horren gustukoa izan erakusketa. Ziotenez, ikusteko gauza larregi zegoen. Edozein modutan ere, museo bietara bisitan joateak benetan merezi duela diot. Artea maite baduzue, nirekin ados egongo zaretela ziur nago".

aldetik justu samar genbiltzako, baina ez nuen minutu bakar bat gehiago behar izan Fionaren lana preziatzeko".
Izan ere, behin klasetik irten eta Donostiaraino joanda, ahalik eta gauza gehien ikusten ahalegindu ziren. Ikasleak bere kronikan jasotakoari jarraituta, "Koldo Mitxelenatik atera eta korrika joan ginen Kursaalera, Goya sarien 26. urteurrenaren harira antolatutako erakusketa ikustera, alegia. Sartzan gindoazen heinean, nire begiek zertan pausatu ez zeki-



Udalekuetako ikasleen topaketa La Sallen

Azaroaren 24an La Salle Isasi ikastetxean topaketa izan zuten uztailean La Salleren San Asensioko udalekueetan egon ziren Eibarko eta Donostiako neska-mutilek. Txikientzat ludoteka antolatu zuten eta, behin horrekin amaituta, Donostiako La Salle San Luiseko neska-mutilek ailegatu ziren: Elkarrekin bazkaldu eta gero, udan egindako argazki eta bideoak ikusteko tartea hartu zuten eta oraindik ere begiraleek eurentzat prestatutako jokoetan parte hartzeko nahikoa denbora izan zuten. Talde polita osatu zuten erretiratuan ikusten dituzuen 108 neska-mutilek. Begiraleen berbetan, "topaketak izandako emaitza ona ikusita, La Salle Isasin egingo dugun Izartxo aisialdiko jarduerak noiz ailegatuko irrikitan egongo gara".



**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ☎ 943 201095 Fax: 943 202564



Denboraldi amaiera bikaina Eibar Triatloi Taldekoentzat

Hamaika probez osatutako mendi-duatloi bigarren zirkuitoa amaituta, Roberto Gartzia duatleta eibartarra beterranoen mailan hirugarren sailkatu da 9 lasterketatan parte hartu eta gero. Eibar Triatloi Taldeko beste atleta batzuk ere zirkuito horretan lehiatu dira: Peio Osorok eta Oscar Castri-llok hiru probatan parte hartu dute eta Juanjo eta Ibon Romerok, berriz, proba bana jokatu dute. Bestalde, Euskadiko Triatloi Federazioak urtero egiten duen sari-banaketa ekitaldian bost eibartar izango dira saria jasotzen: duatloian, Txomin Osoro (1.a kadeteetan) eta Roberto Gartzia (A beterranoetan); eta triatloian, Andoni López (3.a juniorretan), Ane Ziaran (2.a emakumeetan) eta Alejandro Altuna (1.a B beterranoetan).

Astehenean kirol instalazioen zozketak

Abenduaren 17an Ipurua eta Unbe kirolguneetako instalazioen urteko zozketa egingo da bi instalazioetako prentsako geletan. Ipuruan 19.00etan zozketatuko dira Unbeko tenisa eta foballa eta Ipuruako squash-a eta areto-foballa; eta, handik ordu laurdenera, 19.15etan, frontoia. Unben, bestalde, padelaren orduak zozketatuko dira 20.00etan.


Ferreiro Euskadiko squash Masterrean

Eibarko Klub Deportiboko Alberto Ferreirok parte hartuko du bihar Hondarribiko Hondartza kiroldegian jokatu den Euskadiko squash Masterrean. Euskal ranking-eko zortzi onenak izaten dira torneo horretan, baina horko bik ezin izango dute parte hartu, tartean Sergio Salgado debarrak -lesionatuta dagoelako-. Masterra bihar goizeko 10.45etan hasiko da.

Bolunburu Krosak jantziko du Arrate domekan

Olabeiko zelaia izango da, beste behin, Bolunburu krosaren lekuko. 63. edizioko probak bederatzi lasterketa izango ditu guztira: lehenengoa 10.30etan hasiko da eta azkena 13.15etan eta, proba nagusieinei dagokienez, emakumeen absoluto mailakoa (5.100 metro) 11.15etan hasiko da eta gizonezkoena 11.45etan (8.500 metro). Aurten izango da berritasunik eta, atletek zirkuitu osoa belar gainean egin dezaten, Krabelin atzetik doan pistan egiten zizutzen 500 metroak kendu dituzte eta, horien ordeaz, 300 metroko belar gaineko tartean jardungo dute: zirkuitua, horrela, 1.900 metro izatetik 1.700 izatera pasatuko da.

Parte-hartzaileen artean, Gipuzkoako kros denboraldia egiten dihardutenak izango dira nagusi eta bizkaitarrekin ere kontaktzen dute Klub Deportiboko antolatzaileek.



Eibar Eskubaloiko bi selekzioarekin




Aitor Oregi eta Mikel Guerra Eibar Eskubaloiko jubenilak Euskadiko selekzioarekin aritu dira azken asteburuan San Sebastian de los Reyesen jokaturako autonomien arteko txapelketan. Galiziari 32-30 eta Madrili 26-24 irabazi eta gero, Asturiasekin galdu ondoren, sailkapeneko hirugarren postuan amaitu zuten torneo. Aukera ona izan dute bi eibartarrek urtarilaren 3tik 8ra Vigon jokatu den Espainiako txapelketa prestatzeko.

Somos Eibar hirugarren sailkapenean

Beti Onak 29-24 menperatu eta gero, Eibarko taldeak postu bat egin du aurrera sailkapenean. Bihar lehen itzuliko azken partidua jokatu dute Getxon azken sailkatuaren aurka.

Eibartarrak bikain Arrigorriagako Triatloi Indoor-ean

San Andres bezperan Arrigorriagako kiroldegian jokatu zen III. Triatloi Indoor-ean eibartar bik hartu zuten parte eta emaitza ezinhobeak eskuratu itzuli ziren etxera: Olaia Padilla txapeldun geratu zen junior mailan eta 23 urtetik beherakoen artean, berriz, Ibon Romero (argazkian) bigarren sailkatu zen. Ehun lagunetik gora izan ziren lehiari bete beharreko honako probetan: kilometro bat arraun ergonomikoan, 5 kilometro bikizketan eta beste kilometro bat antxixkietan.



Ibon Romero.

Eibarrek ezustea eman
zuen Katedralean.
NEKANE HERNANDEZ



Eibarrek San Mamesen historia egin zueneko

Inor gutxi sinesten zuena (edo gehiago ziren?) suertatu zen askorentzat data gogoangarria izango den 12-12-12an eta Eibar Kirol Elkartek Bilboko San Mames katedral handia itxi zuen Kopako partiduetarako, lehiaketa horretako hurrengo partidua eraikitzen diharduten zelai berria jokatu baitute bilbotarrek. Hortik Eibar San Mameseko historiara pasatzea. Bestetik, Gaizka Garitanoren taldeak itxura sendoa eman zuen San Mamesen eta, bigarren zatia aurrera zihoanean penaltiz Arruabarrenak sartutako golari esker sailkatu zen, azken unean Adurizek egindako gola jaso behar izan bazuen ere. Hurrengo kanporaketako partiduan, Kopan jarraitzen duen 2. B mailako talde bakarrak Champions-ean bikain diharduen Málaga hartuko du Ipuruan (hilaren 18an, 20.00etan); hala ere, aurretik eta Ligako norgehiagokan, Lleida indartsuak bisitatuko du Ipurua domekan.

Kalamuako judokak geratu barik

Aurreko asteburuan Kataluniako Súria herrian izan ziren Kalamuako ordezkari batzuk jiu-jítsuko Katalunia-Euskadi Topaketen 3. edizioan eta hor Iker Martíñezek urrezko domina irabazi zuen eta Eneko Loresek brontzekoa. Asteburu honi begira, bihar goizean Iruñean jokatu den Espainiako Kopan hartuko dute parte Nekane Muguruzak eta Julen Tamonek eta bi horiek izango dira ere etzi Hernanin jokatu den senior mailako Euskadiko txapelketan. Zapatu arratsaldean, bestalde, Hernanin bertan infantil mailako Gipuzkoako txapela izango da jokoan.



berriak



ARETO-FOBALLA


Debabarrenako bigarren taldean jokatzeko bost jokalaririk dituzte jubenil mailako Gipuzkoako selekzioarekin jokatzeko. Eurretako batek gainera (Michael Vidal) Euskadiko selekzioaren deia ere jaso du.

TXIRRINDULARITZA

Eibarko Txirrindulari Elkartek presidente berria aukeratuko du urtarrilaren 4an, baina horretarako abenduaren 21erako aurkeztu beharko dira interesatuek. Ohiko Biltzar Nagusia 20.00etan hasiko da eta, hori amaituta, Ez Ohiko Biltzarrean aukeratuko da presidentea.

WATERPOLOA

Waterpolo Eskolako lau eibartar izango dira domekan Orbea kiroldegian (14.00etan) egingo den denboraldiko Euskadiko selekzioaren lehenengo teknifikazio saioan. Joseba Urkia, Unai Etxaburu, Igor Sanz eta Izei Sologaitzuek Sergi Pérez teknikari kataluniarraren aginduetara jardungo dute.



JESUSA MONGE SALAVERRIA

(2012ko azaroaren 20an hil zen, 90 urterekin)

"Gure ama maitea: zein erraza izan den zu maitatzea, zein zaila zu ahaztea. Beti, beti, gure bihotzean"

ZURE ALABA, SUHI, BILOBA ETA BIRBILOBAK

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



JULIAN IANTZI *aurkezlea* "EUSKERARI ESKER munduari bira eman diot"

Telebista-aurkezle ezagunak hitzaldia emango du martitzenean, hilaren 18an, 19.00etan Portalean. Euskararen erabilera sustatzeko inguruan berba egitera etorriko zaigu, ... eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Izan ere, hainbat telebista saiotan gidaria izatez gain, lesakarrak euskerarekiko sentsibilitate berezia dauka, bere esperientzia pertsonalaren eraginez. Horregatik, Euskal Herriko beste herri batzuetan egindakoaren bidetik, Eibarren ere izango dugu berari entzuteko aukera. Sarrera librea eta doan da.

- Zertaz jardungo duzu hitzaldian?

Azken urteotan euskeraren ezagutza mailak gora egin duen arren, erabileran ez da gauza bera gertatzen eta, erabili ezean, hizkuntza galtzeko arriskuak hor dirau. Nik hori ondo dakit, neri gertatu zitzaidan eta. Gurasoak Ameriketara zeudela jaio ginen seme-alabak eta, handik Lesakara bueltan, 7 urte nituela, euskeraz eta ingelesez, besterik ez nuen berba egiten. Frankismoaren azken urteak ziren eta oso txarto pasatu nuen, gaztelera ez nuelako ezer ulertzen eta, gainera, zigortu egiten ninduten. Gaztelera ikasi eta gero eta gehiago erabiltzen joan nintzen, etxean ikasitako euskera alboratuta. Konturatu orduko, ia galduta nuen, hizkuntzetan ohitura delako kontua.

- Eta nolatan bueltatu zinen euskerara?

30 urterekin, nire euskera maila ikaragarri jaitsi zela ikusi eta konpromisoa hartzea erabaki nuen. Ordurako lanpostua ziurtatuta nuen eta ez nuen euskeraren premiarik, baina hala ere euskaltegia izena eman eta euskera berriz ikasteari ekin nion. Maila hobetzen joan nintzen, gero eta gehiago erabiltzen, euskeraz irakurtzen... Hara non, 3 urteren bueltan telebistan beharrean hasteko aukera suertatu zitzaidan, zergatik eta euskalduna izateagatik. Euskerak ate asko zabaldu dizkit eta bizimodu ere aldatu zait, hizkuntzak komunikatzeko tresna baino zerbait gehiago direlako. Euskerari esker munduari bira eman diot eta jende mordo ezagutu dut.

- Zuk eskolan bizi izandakoak eta zure seme-alabek ezagututakoak zerikusi gutxi izango dute, ezta?

Orain Irunen bizi gara eta ez da oso eremu euskalduna. Hurrek eskolan euskeraz egiten dute, baina hortik kanpora gaztelera jotzen dute etenbarik. Beraz, zerbaitetan oker gaitzera erabilera sustatzeko moduekin asmatu behar dugu, gazteei ahalegin berezia eskatzen badiegu ez dute egingo, horregatik eurei gusatzatzen zaizkien toki eta jardueretara gerturatu beharko dugu.



Umeentzako antzezkiuna Coliseoan

Bihar 17.00etan Borobil Teatroak umeentzako antzezkiuna eskainiko du Coliseoan: "Ali Baba eta 40 lapurrak" (sarrerak 5 euro balioko du). Anartz Zuazuk zuzenduta, zuzendariak berak antzeztuko du lana, Asier Sota eta Julen Vegarekin batera. Pertiako Ali Baba ezagunaren istorioa inoiz ez bezala kontatuko digute hirurek.

Olentzerori gutuna astelehenerako

Portalean eta Pegoran ipini dituzte Olentzerori idatzitako gutunak jasotzeko postontziak. Jasotako guztien artean zozketa egingo dute eta irabazleek Olentzeroren eskutik zuzenean oparia jasotzeko aukera paregabea izango dute hilaren 24an, 17.00etan udaletxean, ordubete geroago hasiko den kalejiraren aurretik. Edozein modutan ere, behin kalejira amaituta azken orduan idatzitako gutunak Olentzerok jasoko dituela aurreratu dute.



Araolaza Udal Euskaltegia

Orain egun batzuk Oier Araolaza Kezka dantza taldeko zuzendariaren hitzaldia izan zuten Udal Euskaltegiko ikasleek. Hitzaldiaren izenburua hauxe izan zen: Mozorrotzea ez da disfrazatzea. Oierrek neguko festei buruz berba egin zuen eta Euskal Herriko zein Euskal Herrikan kanpoko tradizioen berri eman zuena oso oso interesgarria.



Gerrako umeei errekonozimendua

Eguenean, hilaren 20an "gerrako umeei" aitormena egiteko ekitaldi berezia antolatu du udalak, Ego Ibarra batzordearen eskutik, Badihardugu elkartearen eta Kezka dantza taldearen laguntzarekin. Udaletxean, 2. pisuko batzar aretoan 11.00etan ekingo diote gerra sasoiari atzerria, Espainiako Gerra Zibiletik babestearren ebakututako orduko umeei eskainitako errekonozimendua. Hasteko musika-saioa emango dute Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoek: "Barcarola (Offenbach)", "Maitia

nun zira" eta "Iluntzean" piezak joko dituzte. Jarraian alkateak ongietorria egingo die eta, hori amaituta, Umeen argazki-albuma eta "Hárek Umiak" bideoa erakutsiko dizkiete ekitaldira gerturatutako guztiei. 12.00etan Untzagan, jubilatutako etxearen parean aureskua eskaini eta jarraian gaiaren inguruan antolatutako erakusketara bisita eginda agurtuko dute ekitaldia.



Kezkako dantzariak "Basque Children of '37" elkarteko "umeei" egindako omenaldi ekitaldian egon ziren 2007an.

Zarzuela protagonista Cielitoren kontzertuan



Domekan 12.30etan zarzuelari eskainitako kontzertu berezia emango du Cielito Musika Bandak. Joko dituzten piezak "La del manojo de rosas" (pasodoblea, P. Sorozabal), "Katuska" (lehenengo fantasia, P. Sorozabal), "Katuska" (bigarren fantasia, P. Sorozabal), "Black, el payaso" (obertura, P. Sorozabal), "El Caserio" (bigarren ekitaldiko preludea) eta "La calesera" (kalejira, F. Alonso). Kontzertuan eszenatokiaren atzealdean irudiak proiektatuko dituzte, musikariek eskainiko dituzten zarzuelei laguntzen.

laburrak

SOSTOAREN KONTZERTUAK

Gabonak direla eta, Sostoa abesbatzak kontzertu bana eskainiko du Zaldibarren (hilaren 22an) eta Eibarren (hilaren 23an). Horien aurretik, hilaren 19an Hondarribian zarzuelari eskainitakoa emango du.

DJ FESTA

Zapatuan DJ Festa egingo dute gaztetxean 19.00etatik aurrera. DJ Xuban (Ondarru), DJ Beato (Eibar), DJ Maiora (Eibar), DJ Cuba (Elgoibar) + DJ gonbidatuak jardungo dute eta sarrerak 3 euro balio du.

UNI-A ETA OSASUNA

Osasunaren aldeko 1. martxa antolatu dute Uni Eibar-Ermua ikastetxeek. Datorren egunean 11.00etan hasi eta 13.00a aldera amaitzea dago aurreikusita eta parte hartzera animatzen direnek 3 kilometroko ibilbidea bete beharko dute, Eibar eta Ermuko kaleetan prestatutako zirkuitoari jarraituta. Honezgero 1.000 ikaslek eta 100 irakaslek eman dute izena.

EGOITZA NAGUSIA
Bilburiako 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Erruskaiteko labora

Egokien (biga) poligonoa

Portaketa, maldak eta oregunak erabiltzeko

Kozka - Eskala - Urtumaketa eskala

Eskala Hiri osko ospitaleen hartza zati

Nazio eta Niza portaketa taldeak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa 1414

TELEFONOA (34 938) 943 201 951

Lehenengo Gastronomia

ESTELENA

20an inaugurazioa

ESTAZIÑO, 7

Eibarren

08.00etatik zabalik:
gosariak, kafeak, txikiteoa, bokatak, kazuelatxoak (ehiza) ... eta askoz gehiago

100 ARDOTIK GORAKO ESKAINTZA
12 ardo dispentsatzeko makina eksklusiboa



Fran
Lasuen
Gabilondo

Neurketak

Sasoi ilunak benetan... Badirudi -egunak joan, egunak etorri- nahasketaren zeremonian murgildurik bizi garela. Lengoaiak ere antzerako egoera bizi du; zer esanik ez gizarte-administratzaile diren hainbat politikari, sasi-politiko eta bestelako kasuan, ahoa irekitzerakoan hiritar garenoin premiazkoak iruditzen zakizkien azalpenak eskaintzerakoan, hizkuntzaren hutsunea, ezereza eta balioaren galtzea argi azaltzen baitira. Administratzaile diren -edo euren burua horrela sentitzen duten askok- ez dute sekula jakin zer den balore bat, are gutxiago zer den "res publica", zertan datzan funtzio publikoa; bai ostera zer den prezioa. Badirudi beraiantzat hiritarrok haurtzaro eternalean bizi garela, zenbatzen ez dakigula, kontzientzia kritikorik ez dugula, ez ditugula bereizten informazioa eta jakintza... Hedabideek ere antzerako jokatzan dute sarri: edozein ikuskizun kultura bezala salduz eta "merezi" duen kultura bakarra ikuskizun moduan aurkezten dela erakutsiz... Gehiegitan, alde batetik eta bestetik, "kleenex" kultura saltzen digute: produktu galkorrak. Honekin batera, kulturaren inguruko zenbait girotan -azterlari, bitartekari eta abarrekoetan- industria kontzeptua larregi zabaldu da eta, ondorioz, errentagarritasunaren pisua; ez gizarte-errentagarritasuna, jarrera ekonomikoa baizik. Musikan, teatroan, literaturan, arte ederretan... neurketak dira nagusi... Holan segi ezker, jai.

...eta kitto! 12/XII/14 • 828 zkia.

○ 20.000 bertsolari ikastetxeetan

20.532 haur eta gaztetxok landuko dute bertsolaritza ikastetxeetan ikasturte honetan. 1.429 lagunek dihardute bertso eskoletan Euskal Herri osoko 382 ikastetxetan. Hezkuntza arautuan horiek badira azken ikasturteko datuak, bertso-eskoletan 913 haur eta 516 helduk hartzen dute parte. 153 irakasle/arduradunen aginduetara, Euskal Herri osoan martxan dauden 95 herri-tako bertso gune horietan. Hainbat lekutan bertso-eskolak bailara edo zonaldeka antolatuzko pausuak ematen dihardute: esaterako, Tolosaldean, Lea-Artibain eta Durangaldean.

○ Interneten aldaketa handiak

Ikerketa batzuen arabera, euskara 44. tokian dago sarean; aurten bertan egin du aurrera euskarak sarean; horrela, Twitter sare soziala euskaratu dute hermitarrek eta Jauriaritzak itzultzaile automatiko bat jarri du. Erdarazko hedabideak nagusi badira ere arlo horretan, Eustatek ezagutarazi dituen datuei jarraituz, Bemia.info da euskarazko lehen hedabidea, 21. postuan (Twitter sare sozialean ere jarraitzaile gehien dituen da, 13.442 lagunekin). Albistegi digitaletan ere goraldia izan dute: Sustatu.com izan zen aitzindari 2001ean, eta Zuzeu.com martxan da 2009tik.

euskararen txokoa



Euskararekiko motibazioa lantzeko saio arrakastatsuak

Urria eta abendua bitartean euskararekiko motibazioa eta jarrerak lantzeko eta erabileran eragiteko guraso eta ikasleentzat hainbat hitzaldi eta tailer antolatu ditu Udalak. ...eta kitto! Euskara Elkartek eman ditu saioak eta, parte hartu dutenengandik jaso dituzten balorazioen arabera "oso probetxugarriak" izan dira. Lehenengo hitzaldia urriaren 3an izan zen, Indianokua gaztelekuan eta joan ziren 9 begiraleek umeen artean euskararekiko motibazioa eta jarrera positiboa lantzeko aukera izan zuten. Azaroaren 14koan euskaltegi bietan ikasten dihar-

duten 18 gurasori seme-alabekin arlo honetan nola jokatu azaldu zitzairen. DBH eta batxilergoko ikasleek, berriz, egun biko tailerretan parte hartzeko aukera izan zuten azaroaren 21 eta 28an eta abenduaren 4an. Saioak ematen arduratu den Aina Labadoren berbetan, "horientzat tailer formatoa aukeratu dugu, horrela dinamika eta jolasen bitartez bakoitzaren jarrera eta portaeran hausnarketa lortzeko asmoz. 39 ikasle hartu dute parte eta badirudi eraginkorrak izan direla, gazteek eurek egindako balorazioei begiraturaz gero".

Musika Eskolakoak Hauspoz lehiaketan



Arrasateko saioko irabazleak euren sariekin.


Aurreko zapatuan, hilaren 8an Arrasaten egin zen Hauspoz Gipuzkoako XXV. akordeoi lehiaketan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Juliana Moreno, Garazi Perosanz, Mireia Areitio, Ainhoa Tena, Nagore Gisasola eta Iban Zufiaurre izan ziren parte hartzen eta ez ziren esku hutsik bueltatu, ez horixe: A mailan zilarrezko domina eskuratu zuen Julianak; C mailan urrezkoa Mireiak; C hastapena mailan zilarrezkoa Mireiak eta brontzezkoa Garazik eta ganbara 3. mailan zilarrezko bana Nagorek eta Ainhoak. Zorionak!

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Ongi etorri, JON, azaruaren 17ra gure artera etorri zifian-eta Iruñean. Nora, Mikel eta zure arreba Mirenen partez.




Zorionak, MARKEL, hillaren 8xan hiru urte bete dozu-elako. Famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, zure bederatzigarren urtebetetzian. Famelixaren partez.



Zorionak eta musu haundi bat, JANIRE, lau urte egin dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AINARA Pérez Escudero, haraiñegun bi urte egin zenduaz-en-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, IRATI, zure hamabigarren urtebetetzian. Famelixaren partez.




Zorionak, MARTIN, hillaren 7xan hiru urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, JON, urtia egin dozu-eta! Muxu haundi bat Unaxen eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UR Agote Goroztizaga, hillaren 8xan hiru urte egin zenduaz-en-eta. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, MALEN Urizar Arruti, bixar lau urte egingo dozuzelako. Muxu bat famelixaren partez.




Zorionak, IUNE, domekan bi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ARIANE, astelehenian 12 urte egingo dozuz-eta. Aitxitxa-amama, osaba-izeko eta lehengusuen artez.



Zorionak, JULENE (zazpi) eta EÑAUT (bost), urtiak egin dozuez-eta. Patxo bana etxeko guztien partez.



Zorionak, JULEN, martitzenian lau urte beteko dozuz-eta, pirata! Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Odilen partez.



Zorionak, OIER (astelehenian bost urte egingo dozuz) eta IDOIA (hillaren 2xan bete zenduaz-en-eta). Famelixaren partez.



MADDI eta PATXI etxeko txikixak ertain bihurtu jakuz, lau eta bost urte bete dittue-eta! Segi beti bezain alai eta jator. Zorionak eta infinito patxo, famelixa guztiaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

14ean: 22.30

15ean: 19.45, 22.30

16an: 17.00, 20.00

17an: 20.30

"En la casa"

Zuzendaria: François Ozon



(2 ARETOAN)

14ean: 22.30

15ean: 19.45, 22.30

16an: 17.00, 20.00

17an: 20.30

"El hombre de los puños..."

Zuzendaria: RZA



(ANTZOKIAN)

14ean: 22.30


15ean: 19.30, 22.30

16an: 17.00, 20.00

17an: 20.30

"El hobbit: un viaje..." 3D

Zuzendaria: Peter Jackson



Zorionak, HODEI, astelehenian urtiak beteko dozuzelako. Patxo bat etxeko guztien partez.

BARIXAKUA 14

INDIANOKUA

18.00. Comic Life.
Indianokua gaztelekuan.

BERTSO-SAIOA

22.30. Hankamotxak
Berto Eskolakoen saioa.
Guridi tabernan.

ZAPATUA 15

SORTU-REN BATZARRA

09.30. Sortu-ren eratzte
prozesurako bilera irekia.
Arrate Kultur Elkartearen.

STOP DESAHUCIOS

12.00. Debabarrenerako
Stop Desahucios
Plataforma eratzeko
batzarra. Kasinoan (Barria
Plazan).

AZOKA DEBALDE

12.00-14.00. Azoka
Debalde. Urkizuko parkean
(euria egingo balu,
Azpirineko arkupeetan,
autobus geltoki parean).

ANTZERKIA

17.00. "Ali Baba eta 40
lapurrak", Borobil
Teatroaren eskutik.
Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

UMEENTZAKO TAILERRA

17.30. "Olentzero
mugikorra" tailerra, 3-12
urte bitarteko umeentzat.
El Corte Inglés-ean.

INDIANOKUA

18.00. Filma. Indianokua
gaztelekuan.

DJ FESTA

19.00. DJ Festa: DJ
Xuban (Ondarru), DJ
Beato (Eibar), DJ Maiora
(Eibar), DJ Cuba (Elgoibar)
+ DJ gonbidatua. Sarrera:
3 euro. Gaztetxean.

DOMEKA 16

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika
Bandaren kontzertu
berezia, zarzuelej eskainia.
Musikari laguntzen irudiak
proiektatuko dituzte.
Coliseoan.

INDIANOKUA

18.00. Lagun ezkutua
eta Play Wii. Indianokua
gaztelekuan.

ASTELEHENA 17

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo"
(astronomia). Beheko
Tokia jubilatuta etxean.

MARTITZENA 18

IKASTEN

10.00. "Influencia de los
medios en la formación-
deformación de la
conciencia social", Jose
Vicente Idoiagaren eskutik.
Armeria Eskolan.

HITZALDIA

19.00. Euskararen
erabilera sustatzeko
hitzaldia, Julian Iantziaren
eskutik. Sarrera doan.
Portalean.

EGUAZTENA 19

IKASTEN

10.13. Mendi-ibilaldia:
Mañaria-Arrietabaso.
Durangora joateko tren-
aren irteera Estaziñotik
(Ardantzatik 10.15etan).

KONTZERTUA

20.00. Juan Bautista
Gisasola Musika
Eskolako Gabonetako
kontzertua. San Andres
elizan.

EGUENA 20

IKASTEN

10.00. "El perdón",
Elena Iraolagoitiaren
eskutik. Armeria Eskolan.

GERRAKO UMEEI AITORMENA

11.00. Ekitaldiaren
hasierako musika-saioa
Juan Bautista Gisasola
Musika Eskolaren eskutik.
Alkatearen ongietorria.
Umeen Argazki Albuma.
Bideo-emanaldia: "Hárek
Umiak". 12.00.- Aureskua
Untzagan (jubilatuta
etxearen parean) eta
erakusketara bisita.

NABARRALDE

19.00. "Bizkaiaren
jatorria" hitzaldia, Aitzol
Altunaren eskutik. Arrate
Kultur Elkartearen.

hildakoak

- Juan Domingo Pildain Abarrategi. 55 urte. 2012-XII-4.
- Antonio Mateos Cabezas. 73 urte. 2012-XII-5.
- Concepción Aizpurua Ildiákez. 89 urte. 2012-XII-9.
- Sabino Ruiz López. 88 urte. 2012-XII-10.
- Gorka Etxebarria Madariaga. 2012-XII-10.
- Andres Salgado Segura. 76 urte. 2012-XII-11.
- Albertina Márquez Conde. 86 urte. 2012-XII-11.
- Isabel Astigarraga Astigarraga. 90 urte. 2012-XII-11.

jaiotakoak

- Kerman Iraolagoitia Ramírez. 2012-XII-2.
- Inhar Mallagarai Aierza. 2012-XII-3.
- Telmo Aizpitarte Martín. 2012-XII-3.
- Saad Bensellam. 2012-XII-4.
- Maddi Unamuno Torre. 2012-XII-4.

HOROSKOPOA

ARIES

Ez zabilta fin azken aldian, baina berehala aldatuko da joera hori. Gauzak ongi aterako zaizkizu aspaldiko partez.

TAURUS

Nazkatuta egoteko aitzakia daukazu; izan ere, astroek ez dute ezer onik zuretzako. Urtarrilera arte ez zara osasuntsu ibiliko.

GEMINI

Beti berriketan zabilta eta ez zara konturatzen besteek ere badutela zerbaite esateko. Entzuten ikasi behar duzu.

CANCER

Aldaketa asko denbora gutxian. Lasai, ohituko zara. Baina pazientzia piska bat izan, zure bizitza guztiz aldatuko delako.

LEO

Kalean ia ez dago ibiltzerik: nolako hotza dagoen! Baina zugar ez du eraginik: zure barreneko beroak izotza urtuko luke.

VIRGO

Ez beldurtu krisiarekin, zuk ez duzu-eta bere ondorioak era latzean sufririko. Ez pentsa, dena dela, aberastuko zarenik.

LIBRA

Gabonek harrapatuko zaituzte berrira. Zein opari erosi oraindik pentsatu gabe. Gustatzen zaizu azken orduan ibiltzea!

SCORPIUS

Horrela pentsatzen ez baduzu ere, maiteminduta zaude. Onartzea da onena; horren aurka ez dago borroka egiterik.

SAGITTARIUS

Aken egunotan gogor lan egin baduzu ere, oporrak iritsi arte berdin jarraituko duzu. Gero jasoko duzu merezitako saria.

CAPRICORNIUS


Aste bikaina duzu aurretik: gogorra izanda ere, ahalik eta ondoen moldatuko zara eta gauzak bikain aterako zaizkizu.

AQUARIUS

Momentu guztiak ahal bezain beste aprobetxatu behar dira eta zuk ez duzu hori egiten. Hala ere, ez zaitze kezatu.

PISCIS

Eibarren, mendi tartean bizita, noiz izan da mendira buelta bat ematera joan zaren azken aldia? Aire freskoa arnastu.



erakusketak

✓ Abenduaren 22ra arte

TATTOO CIRCUS. Erakusketa-subasta.
Karrika tabernan.

✓ Abenduaren 31ra arte

BIXENTE EIZAGAETXEBERRIA. Argazkiak.
El Ambigú tabernan.
PATXI JATO. Argazkiak.
Portalea tabernan.



✓ Urtarrilaren 6ra arte

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA. Portalean.

lehiaketak

✓ "Aratosteak 2013 Eibarren" kartela

Informazioa eta lanak aurkeztea: Pegoran,
urtarrilaren 16ra arte.

✓ XXVIII. Nartzoko Zezen Sariak

Antzez Artikulu eta Gidoientzako.
Informazioa eta lanak aurkeztea:
Hezkuntza Esparruan, Egoitza Zentruan,
urtarrilaren 23ra arte.

2			3			4
	1	9			2 3	
	8	7 4				
				5 9		
9		6		1		3
	5 8					
			2 1		6	
	4 7		8		2	
8			9			1

farmaziak

✓ barixakua 14

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

✓ zapatua 15

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

✓ domeka 16

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ astelehena 17

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ martitzena 18

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

✓ eguaztena 19

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ eguena 20

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ barixakua 21

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

SUDOKUA

4	3	0	6	1	7	0	5	2
2	6	8	4	5	3	7	0	1
5	7	1	2	0	3	0	0	4
0	1	4	8	5	2	3	9	7
0	5	3	1	7	9	4	2	6
0	2	7	3	6	4	6	1	9
7	0	0	0	2	0	1	4	9
3	0	2	9	4	1	0	7	6
1	4	5	7	3	2	2	0	0

AURREKOAREN EMATZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Eguzkerako: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Eguzkerako: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Eguzkerako: 07.47etatik 20.47etara ordu. 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Eguzkerako: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Eguzkerako: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai J.A. Mogel auzoan. 3 logela, sukalde-jangela eta kamarotea. Dena kanpora begira. Prezio onean. Tel. 645-776200.
- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Igogailua. 149.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Bidebarrieta kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Guztiz berritua. Dena kanpora begira. Tel. 652-764566.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdigunean edo Urkizu aldean. Tel. 602-490595.
- Pisua behar dut alokairuan Elgoibarren. Tel. 608-474923.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Taberna baten %50 traspasoan. Aukera joranda osoko lanaldirako. Negozioa martxan. Tel. 653-021169.
- Lokala salgai Eibarko erdialdean. 22 m². Prezioa adosteko. Tel. 671-258740.

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Tiburzio Anitua 10ean (Amaña). Gazteentzat egokia. Tel. 696-996175.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-241910.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 685-724861 eta 943-748899.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-895153. Begoña.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 616-690415.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-121252.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 626-946905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 636-517025.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 646-458464.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-422524.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 622-139912.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-720298.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-604531. Julia.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Gizonezkoa eskaintzen da baserriak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko etxean zein ospitalean. Tel. 688-812845.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 617-084256. Angelica.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 627-162936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-065826.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 654-744313.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko: ostalaritzan, eraikuntzan, ... Tel. 644-506655.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-720298.
- Emakumea eskaintzen nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 15 urteko esperientzia. Tel. 680-463892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-207662.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-824278.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 618-050902.
- Magisteritza ikasten diharduen neska eskaintzen da umeak zaindu eta klaseak emateko. Tel. 638-855268.
- Neska euskalduna eskaintzen da Gabonetan umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka, goizez eta asteburuetan. Tel. 699-232823.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako: garbiketarako, eraikuntza... Tel. 660-213652.
- Emakumezkoa eskaintzen da erropa konponketarako egiteko. Tel. 688-841146.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 605-720298.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 605-129530.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta dendan jarduteko. Esperientzia eta titulazioa. Tel. 650-870384.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska euskalduna eskaintzen da ile-apaindegi batean lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Tel. 610-096417.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 654-281645.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 649-770161. Conchi.
- Emakumea eskaintzen da plantxan egiteko. Tel. 650-565186.

- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile eta hoteleko kamarera jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.

4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 648-707376.
- Neska euskalduna behar da Elorrioko baserri batean. Interna. Autoarekin hobeto. Tel. 653-723095. Pili.
- Argazkilaria eta kazetari zaletuak behar ditugu webgune berri baterako. argazkibat@hotmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Irakasleak partikularrak ematen ditu. Talde txikiak. Deitu, eta ez galdu kurtsoa. Tel. 685-739709.
- Bibolina jotzen ikastea nahi duzu? Metodo erraza eta dibertigarria. Asteburuetan. Merke. Ume eta helduentzat. Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Haririk gabeko telefonoa (Panasonic) eta MP4 Topo berria salgai. 25 euro. Tel. 943-120030.
- Estanko lizentzia saltzen da, El Corte Inglés-aren ondoan. Tel. 645-996011.

6.2. Eman

- Katuak oparitzen ditut. Helduak dira. Tel. 615-458103.

6.4. Bestelakoak

- Ingelesa ikasten diharduen euskaldunak euskara ikastea interesatzen zaien ingelesa dakien norbait ezagutu nahiko luke, hizkuntz trukea egiteko. Tel. 653-705096.

Zerk sortu du krisia? Lehentasuna etekin ekonomikoak metatzeari ematea, ez pertsonen bizitzari eta zainketari.

#EgitekoAsko

Erakundeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plaza



berdintasuna**
egiteko asko

www.berdintasuna.tv

MERKATU PLAZA

100€ ko EROSKETA EGINDA

















OPARI LOTE 1 DOHAINIK 1

BERLAGINTZAILA

BERAZI UDALA

Abenduaren 11tik 31ra edo dagoena amaitu arte
Lote bat lagun bakoitzeko
Ticket-ak pilatu daitezke



P
A
R
A
F
A
R
M
A
Z
I
A
D
I
E
T
E
T
I
K
A



ZALOA OTADUY
Farmazian lizentziatua
Dermokosmetikan espezializatua

FARMALUR

Toribio Etxebarria, 18

943 70 29 23

